

## Identitatea beti da arazo

### Label in & out

Bastero Kulturgunea, Andoian

2007ko Urtarrilaren 12tik Otsailaren 17arte

Identitatea beti da arazo. Bazoaz norabait eta berehala dator galdera madarikatua: nongoa zara? Eta erantzunak beti dakar aurrez eraikitako klixea. Euskalduna, fededuna; euskalduna, txapelduna; euskalduna, armaduna. Orduan, zu ez zara zu, besteek nahi dutena zara, klixe batean sartzeko moduko nortasuna daukazu. Hori ez da, ordea, mingarriena. Ulegarria ere bada kanpotarrek zure herriari buruzko ikuspegi mugatua izatea. Klixeak barruan sortuak eta zabalduak izatea, hori da okaztagarria. Eta oraindik gertatzen da. Baserritarrez jantzita ospatzen dituzte euskal jaiak hainbat tokitan.

Klixe horien kontra, eta gaur egungo identitatearen erakusgarri, Ainara Martin komisarioak lau artista hautatu zituen Andoaingo Bastero Kulturunean euren lana para zezaten. Elkarren artean oso diferentiek izanagatik, guztiek hitz egiten zuten identitateaz, edo identitatearen arazoaz.

Borja Uriona (Gernika, 1976) diseinuaren munduan dabil aspaldion, eta Bartzelonan bizi da. Soinean daramagunak ere egiten eta azaltzen du gure identitatea. Horregatik, bere diseinuekin batera, lau euskal jantzi tradizional erakutsi ditu, erakusketa honetarako propio antzaldaturak. Sentsazio arraroa sortzen zaio ikusleari: jantziek itxura berritua daukate, tradizioarekin hautsi egin nahi dute, baina hala ere, jantzi tradizionalak jarraitzen dute izaten. Auskalo ez ote lituzkeen jantziko norbaitek, hurrengo euskal jaietan. Tytti Thusberg (Mikkeli, Finlandia, 1969) ere diseinuaren munduan ibilia da, eta erakusketa honetara ekarri dituen lanek diseinutik dute erdia eta eskulturatik beste erdia. Inork jantziko ez lituzkeen diseinuak dira, inork jantzi ezin dituenak. Eskuarki zaborretara botatzen ditugun material xumeez eginak daude, infusio-poltsez esaterako, eta modu eder bezain sotilean ematen du aditzera gaur egungo publizitateak emakumeari (eta gizonari) inposatu nahi dion identitatearen faltsua.

Aitor Larrañaga *Peli* (Zarautz, 1975) instalazio koloretsu batekin ausartu da. Orain arteko bere ibilbidean pintura izan da nagusi, eta lan honetan ere hala da, baina beste objektu batzuk sartu ditu, urdinez eta gorritz pintatutako edari-poteak eta butano bat, kasu. Koadroetan paisaiak ageri dira, baina ez dute mihise osoa hartzen, moztuta daude, eta interferentzia horiek ikuslea paisaiarekin ezin erabat identifikatzera eramaten dute, gure inguruarekin ezin erabat identifikatzea adierazi nahiko balu bezala.

Saioa Olmo (Bilbo, 1976) da erakusketaren gaiari zuzenen heldu diona, eta Andoaingo herria hartu du langai. Andoaingo armarrria erabili du batez ere, herriko ikur ofiziala. Batetik, herriko jendeari elkarriketak egin dizkio, eta armarrriari eta herriari buruz duten iritzia eskatu die. Eta bestetik, armarrria aldatu egin du; batean ispilu bihurtu du, eta ispilu horrek erakusten zuenari argazkiak egin dizkio; bestean, armarrriaren barruko irudia kendu eta beste hiru irudi jarri ditu: google earth-en ageri den Andoaingo irudia, herriko giza erakunde organigrama, eta herriko jendeari egindako elkarriketetan atera diren lekuak. Edukiko luke labela euskal arteak, existituko balitz.

Xabier Ganzarain



Saioa Olmo 2007